

Santa Aguedaren Historia

Heldu zaigu, berriro ere, Agate Deuna ospatzeko saioa. Bezpera gauean, otsailaren 4an, Euskal Herrian oles egiteko ohitura izan dugu. Oles egitea norbaiti dei edo erregu egitea da, ate-joka laguntza eske ibiltzea. Ohitura honek oraindik dirau bizirik toki askotan.

Agate Deuna martiria Sizilia irlan jaio zen k.o. 230. urtean. Garai hartan Siziliako nagusi zen Quintinianori begitik sartu omen zitzaion. Honek ahalegin guztiak egin zituen neskaren bihotza irabazteko baina alferrik., Jaungoikoari eskainia baitzegoen. Ezin zuela neska lortu eta, neke eta oinaze gogorak sufriarazi zizkion; ezagunena bi bularrak moztea. 251. urtean hil zen, 21 urte zituela. Haurtxoen eta bularretako gaixotasunen bat duten emakumezkoen babeslea da. Suteen kontrako abokata ere bada zenbait herritan.

Agate Deunaren inguruan Euskal herrian ohitura desberdinak izan dira. Kanpai jotze luzeak izaten ziren eta, Bizkaiko zenbait ermitatan, erromeriak.

Beste toki batzuetan, egun horren goizaldean, baserrietako soro eta baratzetan, Kandelario egunean elizan bedeinkatutako kandelak pizten ziren.

Tradizioak zioen egun horretan ezin zela labako edo garbiketa lanik egin.

Gaur egun, berriz, toki gehienetan gorde izan den ohitura zera izan da, zuzendaria aukeraturik, makila bana eskuan hartuta eta lehengo janzkeraz, dirua edo janaria biltzen etxez etxe oles egiten ibiltzea.

Oles egiten den bitartean bertso eta koplak ugari erabiltzen dira. Hona hemen guk Ibarrekolandan kantatzen duguna.

AGATE DEUNA

Aintzaldu daigun Agate Deuna

Bihar da, ba, Deun Agate;

Etxe honetan zorrion hutsa

Betiko euko ahal dabe.

Deun Agatena batzeko gatoz

Herriko neska-mutilak;

Bihotzez hartu gagizuez ta

Zabaldu zuen sakelak.

Alkate jaunagaz egon gara

Atzoko arratsaldean,

Askatasuna geurekin degu

Ibilitzeko bakean.

Orain bagoaz alde egitera

Agur dautsugu gogotik;

Agate Deuna bitarte dala

Ez eizue izan dongerik.

